

**NO AMEMOS DE PALABRA SINO CON OBRAS
EGIN ETA EKIN**

“GRU NIRE BILAUERIK KUTUNENA”. LEHEN HEZKUNTZA

LABURPENA.- “Gru nire bilaurik kutunena” pelikula ikusiko dugu. Nahaste-borrastea da nagusi Egipton; Guizako piramide handia lapurtu eta kopia puzgarria jarri dute bere lekuan, eta dena bilau maltzur baten erruz. Bitartean, Hiri inguruko auzo lasai batean, Gruren ezkutaleku sekretua dago. Bilau nagusia da Gru eta minionsen ejertzito handiaren eta beste hainbat bitartekoren laguntzarekin pentsaezineko zerbait burutu nahi du. Horretan saiatzen dihardu, bere etsaierik amorratuena den Vector superbilaua (piramidea lapurtu zuena) engainatzen saiatzen diren bitartean. Egitasmo perfektua dela uste du, ezinezkoa egitea erabakitzen duenean: Ilargia lapurtu. Hainbat zailtasuni aurre egin beharrean aurkitzen da bere egitasmoa gauzatzerakoan. Bere ibilbidean hiru umezurtz (Margo, Edith eta Agnes) ezagutuko ditu eta beraiek bihurtuko dira erronka nagusi gaur egun A.L.C.E.R. enpresan ikerkuntza batean ari den superbilauarentzat. Hiru neskato umezurtz hauei esker beteko da Gruren beldurrik handiena: “aita izatea”.

HELBURUA. Pertsonaien bitartez, balio eta jarrera jakin batzuk ezagutuko ditugu, ahulenekin, sufritzen ari direnekin, azken batean, Jainkoaren kutunenekin bat egiteak bizimoduz aldatzeak, hobeak izateak, gehiago konprometitzeak, anai-arreba izateak ulertzen laguntzen diguten balio eta jarrerak.



JARDUERAREN GARAPENA PELIKULAREN OSTEAN

LEHENENGO: PELIKULA ERREPASATUKO DUGU

Ikus dezagun pelikulan zer gertatzen den, errepasa ditzagun jokaldirik interesgarrienak, denon arteak komentatuz. Sarreran banatu dizuegun paper horretan irakur dezakezue pelikulako pertsonaiaren batek esan duen esaldia. Honezkero jakingo duzuen norena den eta noiz adierazi duen.

Ordenan ipintzen saiatuko gara. **Esaldia irakurriko dugu eta bere paperean duenak eskua altxatuko du.** Galderak azpimarratuta daude.

- Pelikulako protagonista nagusiei dagokienez, zeintzuk ote dira? Aho batez esango genuke, Gru, Minions, hiru ahizpak eta Vector direla. Eta, hala ere, pelikularen hasieran ez da horietako bakar bat ere agertzen. Pelikularen hasieran, Egiptoko piramideak bisitatzen ari den turisten taldea agertzen da. Ustekabean, piramideetako bat gezurrezkoa dela antzematen dute eta horrek zalaparta handia eragiten du eta telebistako albistegietan ere jasotzen dute berria.

Baditu norbaitek telebistako esatariaren esaldiak?

“Planeta osoan izua hedatu da, gobernu eta herritarrak beraien monumentu preziatuak babesten saiatzen diren bitartean” edo,

“Munduko zein bilau da egundoko bidegabekeria honen arduraduna?”

- **HASTEKO, GRUREN JOKAERA AZTERTUKO DUGU.** Telebistako kontuaren ostean, Gru agertzen da poz-pezik paseatzen. Izoikia lurrera erori zaion haur batekin topo egiten du eta, gogoan duzue Gruk zer egiten duen? Horixe, globoa hartu, txakurraren irudia egin eta eskura ematen dio. Hori ikusita, Gru oso jatorra dela iruditzen zaigu eta haurraren penak uxatzeko egin duela hori. Bina, berehala, Gruk globoa zulatzen du eta haurrari aurpegian lehertzen zaio.

Hauxe da Gruren aurkezpena. Eta ez da hor bukatzen. Gru jateko zerbait erostera doa eta jende-ilara luzea aurkitzean... zer egiten du Gruk ez itxaroteko? Ilaran dagoen jendea izoztu eta berak hanburgesa erosi.

- Gru etxera doa eta adeitasunez agurtzen duen auzotarra aurkitzen du. Nork du auzotarrari esaten dion esaldia?

“Zure txakurrak bonba txikiak utzi ditu nire lorategian eta hori ez zait batere gustatzen. Hori egiten dute txakurrek hilda egon ezik”.

- Auzokoa arduratuta geratzen da, baina Gruri ez dio axola, lasai-lasai doa bere etxera eta hiru neskatok jotzen diote atea. Zer esaten die neskatoei? Nork du esaldi hori?

"Ospa hemendik!"

Ez die aterik irekitzen eta erantzungailu automatikoaren plantak egiten ditu.

Hauxe litzateke Gruren aurkezpena. Beraz, guzti hori kontuan hartuta, nolako da Gru? Bakarrik bere kontuez arduratzen den, inguruan gertatzen denak axola ez dion eta ingurukoak kontuan hartzen ez dituen gizona dela dirudi. Bihozgabea dela ematen du.

- **BESTE PERTSONAIA BAT AGERTZEN DA, NEFARIO DOKTOREA**

"Norbaitek piramidea lapurtu du eta horren eraginez gainerako bilauek ezerezak dirudite"

- **MINIONSAK AGERTZEN DIRA**, Gru beraien nagusia txaloka eta goraka hartuz. "Kolpe handia ematea" dute buruan.

"Tximista murriztailea' eskuratzeaz batera, inoiz ez bezalako lapurreta egiteko gaitasuna izango dugu"

"Ilargiaren jabe izan nadinean, munduak neuk nahi dudan guztia emango dit berreskuratzeke eta neu izango naiz munduko bilaurik handiena. Eta hori bai dela gauza handia!"

Gruk handitasuna, nagusitasuna, ospea, ezagun izatea, boterea... irrikatzen ditu eta hori lortzeko bidea, bilaurik handien bihurtu eta ilargiaren jabe izatea dela iruditzen zaio.

- Bitartean, **NESKATOAK** beraien etxera itzultzen dira eta horrek beraiez zerbait gehiago jakiteko bidea ematen digu. Familiarik ez duten neskatoentzako etxe batean bizi dira. Nork du etxe hartako zuzendaria zen Hatties andreari galdetzen diotena?

"Etorri da norbait gu adopzioan hartzera kanpoan geunden bitartean?"

Ezagutzen dugu zuzendaria eta bere ardura bakarra: zenbat gailera saldu den. Neskatoak ez zaizkio larregi axola, handik igaro izan diren gainerako neskatoen antzerakoak dira, arruntak: horman zintzilaturik dauden koadroetan agertzen diren argazkiak.

Nork du zuzendariak neskatoei erantzuten diena?

“Zoazte, nirea den zerbait garbi ezazue”

Lanak egin ditzatela da bere ardura nagusia eta lotsaren kutxarekin mehatxu egiten die.

- Beste pertsonaia bat ere ezagutuko dugu: **GRUREN AMA**. Honek telefonoz hots egiten dio. Nork du seme-ari egiten dion galdera?

“Zeu izan zara, ala benetako arrakasta duen bilauren bat?”

Ama berataz harro sentitzea nahi du Gruk. Txikitan, ilargira joateko ametsa zuela eta amari esaten ziola gogoratzen du eta baita amaren erantzuna ere: **“zoritxarrez, berandu zabiltzala uste dut, NASAk dagoeneko ez du tximinorik bidaltzen ilargira”**.

- Gru bankura doa; badakizue nola deitzen den banku hori? Bai, **Gaitzaren bankua**. Perkins jauna da zuzendaria eta ez da Gruz fio, krimenak direkzioz eta magnitudez egiten dituen bere seme Vector dagoelako. Gruk ‘tximista murriztailea’ lortzen du, baina Vectorrek lapurtu egiten dio eta bere gotorlekuan ezkututzen du, hara sartzea ezinezkoa baita. Grurentzat bai, behintzat... Hala ere, beste batzuk gotorlekuan erraz sartzen direla ikusten du Gruk, esate baterako Margo, Edith eta Agnes ahizpak. Zeri esker sartzen dira Vectorren etxean? Gailetei esker.

Hori ikustean, ideia bikaina bururatu zitzaion Gruri: gailera robotak egitea. Baina horretarako neskatoak behar zituen. Bere burua dentistatzat aurkeztuz, neskatoak bizi diren etxera doa adopzioan hartzera. Hatties andrea zalantzati agertzen da, baina Gruk “konbentzitu” egiten du bere “laudorioekin”. Zeren aurpegia zuela esan zion? **Arrearena**. Badaki norbaitek zer esan nahi duen ‘arrek’? (‘astoa’ –Sanchoen astoa).

- Neskatoak pozarren daude, azkenean familia izango dutelako. Baina Gru ez dago ohituta maitasun-erakustaldietara eta neskatoak heltzen dionean, zer esaten dio?: **“bueno, nahikoa da neskatilea, askatu hanka, ahal duzu-eta”**.

- Neskatoak, txundituta geratzen dira etxea ikustean; txakurrak marmar egiten du, irudi bitxiak daude... Agnesek eskua emateko esaten dio Guri, baina honek ezetz diotso. Agnes kutxa batean sartzen da, hilda dagoela ematen du eta Gru bihozgabe agertzen da. Antolatu duen egitasmoa ondo ateratzea da bere kezka bakarra. **“Uste dut egitasmoa birekin ere aurrera aterako dela”.** Jateko, pixa eta kaka egiteko behar dutena jartzen die, txakurrei bezala; eta arauak ere jartzen ditu... Nork ditu arau horiek?: Ez ezer ukitu. Ez gogait eragin lanean ari naizenean. Ez negarrik, ez irribarrerik, ez barre-algararik egin, ez korrok egin, ez uzkerrik bota...

- Gruk ez du neskek traba egiterik nahi. **Baina, zer egiten duzue hemen? Sukaldean geratzeko esan dizuet...** Edo, **zain itzazue hurbil ez dakizkidan, mesedez...** Neskatoak ere ez daude gustura berarekin, inoiz ez dela beraien aita izango esaten diote, baina Gruri ez dio axola. **Gaindituko dudala uste dut...**

Neskatoek gauez, beldurturik, ipuina irakurtzeko esaten diotenean, ezezkoa da bere erantzuna eta, gainera, gehiago izutzen ditu armairuan dituen mozorro eta munstroekin.

Hiru ahizpez eta gailera robotez baliatuz, Vectorren etxera sartzen da Miniosekin eta ‘tximista murriztailea’ lapurtzen du. Etxera bueltan, jolas-parkera joan nahi dutela esaten diote neskek eta Gruk haiek abandonatzeko ideia darabil buruan bueltaka. Izan ere, dagoeneko ez ditu ezertarako behar, lortu duelako helburua: ‘tximista murriztailea’ lapurtu.

Hala ere, parkean ederto pasatzen du neskatoekin. Beraiek aitortu egiten dute eta harro sentitzen dira berataz, kaseta osoa lehertuta bada ere, adarbakar erraldoia lortzen dienean. Nefario doktoreak ilargia lapurtu nahi du eta ez du Gruk hori ahazterik nahi. **Hamabi egun geratzen dira ilargia posizio ezin hobean egon dadin. Ezin dugu arretarik galdu!**

- Gruk gero eta denbora gehiago ematen du neskatoekin: afaria prestatzen du beraiekin, ipuinak kontatzen dizkie lokartu aurretik, umetako gauzak kontatzen dizkie, esate baterako, amari ilargira joan nahi zuela esan eta amak beti “Be”, “Be” erantzuten zionekoa...
- Neskatoek errezitaldia dute eta Burk joango dela agindu die hatz txikiarekin. Baina errezitaldia ilargia lapurtuko duten egunean izango da... Bertan behera utziko ote du Gruk ilargiaren lapurreta, neskatoen emanaldira joateko? **Errezitaldia? Gizaldiko jenio nagusia naiz munduan eta ez noa dantza-errezitaldi barregarrietara!**

Hattie andre neskatoen bila doa baina hauek ez dute joaterik nahi; Grurekin geratzea eskatzen diote, baina Gruk ez du ezer egiten.

Errezitaldiaren egunean, Gruk kale egin diela sentitzen dute neskatoek ez delako joan nahiz eta aurretik agindu. Gruk ilargia lortzen du eta Vectorrek neskatoak bahitzen ditu.

- Vectorrek ilargia eskatzen dio neskatoen truke eta Gruk eman egiten dio, huts egin duela aitortu eta inoiz ez dituelako bertan behera utziko agintzen dielako.

Etxean, gauez, Gruk ipuina kontatzen die, bere esanetan, mundu mundialeko ipuinik onena. Eta, horrela, bere bizitzan hiru katutxo sartu zirela, barre eta negar eragin ziotela kontatzen die eta orain konturatzen dela horretaz, hiru katutxoek bihotza aldatu egin ziotelako.

Gru aldatu egin zen. Amak semeaz zuen iritzia ere aldatu egin zen. Ze iritzi du orain semeaz?: **Harro nago zutaz, seme, aita ona izan zarelako.**

BIGARRENA: ZER DIOSKU PELIKULAK?

- Gru aldatu egiten da. Ez da gautik egunera aldatzen. Bizi duenaren, gertatzen zaionaren bidez, gauza batzuei garrantzia ematen die eta beste batzuei ez. Bilaurik ospetsuena izateko irrikatik pertsonen arduratzera igarotzen da. Gizon ezatsegin izatetik, gizon ez-titsu izatera igarotzen da.

Gizakiok aldatu egiten gara, bizi dugunetik, gertatzen zaigunetik, gure ingurukoek irakasten digunetik ikasi egiten dugu.

- Gruren ilusiorik handiena, ilargia lortzea zen, hori zen bere ametsa. Hala ere, neskatoen eta ilargiaren artean aukeratu behar duenean, ez du zalantzarik eta ilargia Vectorri ematen dio.

Pertsonak beti dira gauza materialak baino garrantzitsuagoak; nahiz eta gauzarik garrantzitsuen eta garestiena izan beti egongo da gizakiaren azpitik.

- Margo, Edith eta Agnes ahizpak dira, umezurztegian bizi dira eta familiaren batek adopzioan hartzea da beraien ametsa. Ezer eskaintzekorik ez dutela dirudi. Gruk adoptatzen baditu, Vektorren gotorlekura sartzeko beraiez baliatzeko izango da. Hala ere, neskatoek bizitza aldatu egiten diote.

Itxuraz ezer eskaintzekorik ez duten pertsonak izaten dira gehien irakasten digutenak.

- Gruk, hasieran, jarrera hotza zuen neskatoekin: ez zuen haiek ukitzerik nahi, ez zien musu ematerik nahi, etxean bueltaka ere ez zituen ikusi nahi..., azken batean, ez zuen ezer jakin nahi neskatoez...

Askotan, ezagutzen dugunean ixten gara, gure taldeko pertsonengan eta ez dugu beste batzuk ezagutzeko aukerarik aprobetxatzen.

- Taldean, aniztasunaz, bakoitzak eman dezakeenaz baliatuz, ahaleginak bilduz konpontzen ditu Gruk aurkitzen dituen zailtasunak. Minionsek elkar zaintzen eta babesten dute.

Garrantzitsua da taldean jardutea, denok dugu zer eskaini eta ezinbestekoa da gainerakoen ekarpenak aitortzea eta baloratzea.

- Pelikulan ikusten denez, askok ez du konfiantzarik Grurengan: Ama beti dago berarekin haserreturik, ezin du ezer positiborik ikusi semearengan, inoiz ze dago pozik berarekin. Gaitzaren bankuko presidente den Perkins jaunak be ez da bere asmakizunez edo egitasmoez fio...

Garrantzitsua da pertsonengan konfiantza izatea. Inor ez bada nitaz fio, beldur izango naiz ezer egiteko...

- Hattie andrea da erreferentzia neskatoentzat umezurztegian, baina ez da lar maitekorra. Bere nahiak betetzen ez badituzte, lotsaren kutxa jasotzen dute zigortzat.

HIRUGARRENA: PELIKULAK IRAKASTEN DIGUNA

Frantzisko Aita Santuak Behartsuen aldeko Munduko Egunerako eskatzen diguna bat dator Gruk egiten duenarekin: fidatu, pertsonak baloratu, nor bere buruari besteak ezagutzeko aukera eman... beraiekin egonez gero, gauza asko ikasiko dugulako, zalantzarik gabe.

Bakarrik dauden pertsonak, inor ez dutenak... dira kutunenak Jesuentzat eta geuretzat be bardin izan daitezela nahi du. Eta egiten duguna, goiburuak dioenaren haritik, hitzez bakarrik ez ezik, egiaz, zeinuz, ekintzez... egin dezagula. Guk besteko zorionik ez dutenen ondoan egoteko diosku Jesusek. Ezagutzen duzue adiskiderik ez duen norbait? Altxa dezala eskua horrelako norbait ezagutzen duenak. Eta gaixorik edo bakarrik dagoenik? Ikusi duzue noizbait norbait kalean, eskean?

Hona hemen zein konpromiso hartu beharko genukeen gaur, Gruren jarrera ikusi ondoren: adiskiderik ez duen norbait agurtu edo harekin egon, gaixorik edo bakarrik dagoen norbait bisitatu, kalean eskean ari diren pertsonak agurtu eta hauei begietara begiratu... Horiek direlako Jainkoaren kutunenak.

Amaitzeko, banatu genizuen otoitza, 'Gure Aita', errezatuko dugu elkarrekin. Otoitz honetan, dei egiten zaigu begiak irekita izan ditzagun, besteen arazoak geure egin ditzagun eta ez axolagabe jokatu.